

Usurbil: sagarraren bihotza, sagardoaren kultura

Usurbilgo Udalak, Alkartasuna Kooperatibak, Sagardoaren Unibertsitateak, Sagardo Egunaren Lagunak, Noauak eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak "Usurbil: sagarraren bihotza, sagardoaren kultura" marka eratu dute. Sagarraren eta sagardoaren kultura zabaltzeko eta herrian egiten diren ekimenak bateratzeko eta koordinatzeko helburuz sortu dute. "Iraganean zer izan garen ezagututa, etorkizunera begirako apustua da", nabarmendu du Xabier Arregi alkateak. Udazkeneko agenda bete-betea dator.

2018-09-06



Usurbil: sagarraren bihotza, sagardoaren kultura marka eta udazkeneko agenda aurkeztu dituzte gaur goizean ekimen honen sustatzaile izan diren elkarteetako ordezkariak: Xabier Arregi Usurbilgo alkateak, Mikel Izagirre Alkartasuna Baserritarren Kooperatibako lehendakariak, Jakoba Errekondo Sagardoaren Unibertsitatea elkarteko ordezkariak, Aizpea Aizpurua Noau! Kultur Elkarteko ordezkariak eta Olatz Mitxelena eta Unai Agirre Gipuzkoako Sagardogile elkarteko ordezkariak. Lan kontuak medio, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak elkarteko kideek ezin izan dute bertaratu, baina ekimenaren bultzatzaileak ere badira. Aurkezpenera ere herriko sagardogileak hurbildu dira, eta, ostean familia-argazkia atera dute guztiek.

IRAILA	
8	Sagarrondotik Sagardora 2018. Sagarraren heldutasun analisia. Etxean sagardoa egiteko hastapenak. Aitor Etxeandia eta Egoitz Zaplana.
23	VI.Sagastiak Loretan. Berto ibilaldia. Oihana Iguaran eta Andoni Egaña. 11.00etan Zubietako hipodromoan. Usurbil eta Zubietako inguruan ibilbidea. sagastiak ezagutuz bertsoariari eskutik. Ondoren mekadua iruin Sagardotegian
24/30	VI.Sagastiak Loretan. Sagar erakusketa iraunkorra Suteagiren erakuslehoan. Sagardotarako erabiltzen ditugun 115 barietateren artean aukeraketa ikusgai.
25	VI.Sagastiak Loretan. Usurbil eta Sagardoaren historia Xabier Alberdi historialariaren eskutik. 19:30 Suteagin. Usurbilgo herriari izatera ematen dioten edaria da Sagardoa. Historia ezagutu nahi?
26	VI.Sagastiak Loretan. SAGAR dastatzea Jakoba Errekondo eta Gabriel Durrutyren eskutik. 19:30 Suteagin. Sagardotarako sagaren ezaugarriak ezagutu ahal izango ditugu, euskal sagar barietateen nondik norakoak azalduz.
27	VI.Sagastiak Loretan. "Sagarrari sukaldia dario" Dani Lasa, sukaldari ikertzailearen eskutik. 19:30etan Aitzaga elkarteak. Zuzenetik hadietaraino, sagarrak makina bat aukera eskaini diezakegizkizuki sukaldetan. Fruitua, oziplina edo sagardoa bera, osagai erakargarriak dira platera gozo zehin gacel gure lurraren nortasuna kutsa daklegun. Errezeta eta ideien errepaso praktikoa egiteko aukera.

28	VI.Sagastiak Loretan. "Sagardoa bidegile" dokumentalaren proiektzioa. 19:30 Suteagin.
29	Euska Herriko IV.sagardo txapelketa herrikoia 20:00 frontoian. Usurbilgo herria eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen eskutik. Afalduz, Euskal Herriko beste herrietan salikatu diren 12 sagardo dastatuak ditugu, eta norberaren iritzia arabera erabakiko da zein den aurtengo bapelduna. Txapelak salgai jarriko dira abuztuaren azken asteak aurrera Usurbilgo ohiko lekutan eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak (info@sagardoa.eus - 943338111
AZAROA	
10	"Txalaparta Sagardoa da" jaialdia Sagardoa eta eguna Usurbilgoaren historiaren ardatz. Sagargintza lanetan ari eta egurren solinak eman zion izena Txalapartari eta jaialdi batekin ospatuko dugu Usurbilen Sagardoa, egurrak eta Txalapartak herrian duten lekua.
ABENDUA	
16	Santo Tomas azoka 2018. Sagardo lehiaketa herrikoia



Xabier Arregi Usurbilgo alkateak ongi-etorri oparoa egin dio ekimenari. Haren hitzetan, Usurbil, sagarra eta sagardoa elkarri lotutako hiru kontzeptu dira. “Sagarra eta sagardoa gure bizimoduaren ardatz izan dira mendetan, eta, horregatik, herri-ondare garrantzitsua dira”. Nabarmen ikusten da hori hainbat arlotan: historia, kultura, nekazaritza, hezkuntza, sorkuntza, turismoa, paisaia, garapen ekonomikoa, enplegua, merkataritza edota lurralde antolaketan. Haatik, Arregiren esanetan, ez dira kontzeptu geldoak. Bizi-bizirik daude. Herri-ondare bizia da. “Ez dira soilik kontzeptu historikoak, geldoak. Ekinean ari den kontzeptua da, bizi-birik dago”. Izan ere, sagarra eta sagardoa ardatz duen jarduera ekonomiko indartsua du Usurbilek, jarduera ekonomiko nagusietako bat baita.

Horretaz gainera, Usurbilen saio eta ekintza ugari antolatzen dituzte herri-eragileek sagarra eta sagardoaren bueltan. Aipagarriak dira, esate baterako, Sagardo Eguna antolatzen herri aitzindaria izan zen Usurbil eta dagoeneko 37 aldiz egin da; eta Sagastiak Loretan zikloaren 6.edizioa egingo da aurten. “Horrek adierazten du bizi-bizirik dagoela herrian sagarraren eta sagardoaren inguruko jarduna”, dio alkateak. Hala ere, horiek guztiak koordinatzeko beharra ikusi da, eta behar horri erantzuten dio, hain zuzen ere, Usurbil: sagarraren bihotza, sagardoaren kultura markak. “Urteko egitarau bateratua izateak indarra eta oihartzuna ematen dio gure eskaintzari, bai kanpora begira bai barrura begira. Gainera, herriko eragileen arteko lankidetzak, proposamen eta ekimen berriak ernaltzeko modua izatea nahi genuke”, nabarmendu du Xabier Arregik. Hortaz, sagarraren eta sagardoaren kultura ezagutzera emateko, zabaltzeko eta sendotzeko tresna da sortu berri den marka. “Iraganean zer izan garen ezagututa, etorkizunera begirako apustua da”.

Urte guztiko egitaraua

Jakoba Errekondo Sagardoaren Unibertsitatea elkarteko kidea ere antzera mintzatu da. Haren esanetan, urrats garrantzitsua egin dute Usurbilen: “Gaur egun sagarra eta sagardoaren inguruan osatzen den egitaraua urte osokoa da. Txotx garaia eta Sagardo Eguna etengabeko harago doa. Ez da inon halako egitaraurik osatzen”. Bi ekimen nabarmendu ditu Errekondok. Batetik, Alkartasunak eskaintzen dituen formakuntza-ikastaroak. “Euskal Herrian egiten den bakarra da. Ekartzen dituen irakasleak ez dira edozein”. Eta, bestetik, Noaua! Kultur Elkarteak Santo Tomas egunean antolatu ohi duen herriko etxeetako sagardo lehiaketa.

Udazkeneko agenda ekitaldiz lepo dator. VI. Sagastiak Loretan zikloaren barruan, hainbat ekimen eta solasaldi antolatu dituzte. Arestian aipatutakoaz gain, badira nabarmendu beharreko beste bi ekitaldi ere: irailaren 29an Euskal Herriko IV. Sagardo Txapelketa herrikoia Usurbilen jokatu da; eta azaroaren 10erako Txokoaldeko Txalaparta Txokoarekin batera antolatu den “Txalaparta sagardoa da” jaialdia. Usurbilen sagardoak, egurrak eta Txalapartak izan duten lekua ezagutzeko aukera paregabea eskainiko du.